

LUGOKO MUSEO PROBINTZIALA (Lugoko Aldundiaren Museo Sarea)

Lugoko ondare kulturalaren ondasunak biltzeko eta babesteko, 1932an, Lugoko Aldundiak Lugoko Museo Probintziala sortzea adostu zuen. Asmo hori bi urte geroaro gauzatu zen, San Marcos Jauregian material arkeologikoak, historikoak, artistikoak...zituzen zenbait areto zabaldu zirenean (Luis López Martí jaunaren zuzendaritzapean), ordura arte bilduma partikularretan sakabanatuta zeudenak. Aleak etengabe handitzen joateak eta toki faltak behartu zuten 1957an museoa antzinako San Frantziskoren komentura lekualdatzera. Antzinako horren hiru gela kontserbatuz (sukaldea, klaustroa eta jangela), Manuel Gómez Román (1875-1964) Vigoko arkitekto jaunak galiziar jauregi itxurako eraikin berria egin zuen, Durán Loriga-ren aurretiko proiektu bat oinarri hartuta. 1962ko martxoaren 1ean, Lugo Museo Probintziala Interes Kulturalako Ondare izendatu zen. 1997an handitu egin zen museoa, González Trigo arkitektoaren arabera.

Pons Sorolla arkitektoak diseinatutakoa aurreko mendearen hirurogeiko hamarkadaren hasieran, Museoaren lorategia espazio berezia da, eta bere balio natural eta artistikoek nabarmentzen dute. Balio naturalen artean bi zuhaitz izugarri deigarri egiten dira: hosto iraunkorreko *grandiflora* magnolia eta *variegata* gorostia, eta horiekin batera, astigarrak, makalak...ere baude. Gune hori museo bihurtuta dago galiziar eta portugaldar eskultoreen bost lanekin. Era berean, bereziki interesgarria da egitura herritarra duen *cruceiro* zahar bat, Texeiro-tik (Lugo) ekarria, eta Franqueán-dik (O Corgo) ekarritako miliario bat eta baita *Marco da Pedra Longa* ere (Sober).

BEHEKO SOLAIRUA

1. JANGELA: XVIII. mendekoa, kanoi ganga eta hargintzazko pulpitu duena. Lugoko probintziako eraikuntza tradizionalen maketa bildumak jasotzen ditu.

2. SUKALDEA: (XVIII m.). Hargintzazko sutondo bereizgarria nabarmentzen da, harri-hormako tximinia ikusgarriarekin. Galiziar tradiziozko sukaldearen tresnak eta altzariak dauzka.

3. KLAUSTROA: (XV-XVIII m). Kultur Inteseko Ondare izendatua 1931n, bertako pasilloetan hauek aurki ditzakegu: eguzkitako ordulari bilduma zabal eta anitza (zaharrena 1685ekoa da), erromatar (aldare-harrietan, plaketan eta miliarioetan) eta Erdi Aroko epigrafia, heraldika, kapitelak, sarkofagoak, hilobietako harriak eta garai desberdinetako eskulturak harrian. Bereziki nabarmentzen dira Sta. María de Fragas-tik (Campo Lameiro-Pontevedra) etorritako baldakin gotiko baten zatiak, Testamentu Berriko eszenak erakusten dituztenak.

3 (bis). Antzinako kapitulu-gelarako sarbidea: erromatar botozko aldare-harri bilduma, batzuk jainko indigenei zuzendutakoak, eta Lugoko hiria sortu zeneko plakak Paulo Fabio Máximo-renak, Castillón-dik (Pantón) etorritako bi estela anepigrafiko diskoiderekin batera (K.o. IX-XI).

Ataria: XVII-XVIII. mendetako gauzak gordetzeko altzariak (egurrezko altzariak Bargasko estilora, mahaiko taula duen altzaria eta kutxa).

4-5-6. ELIZ ARTEA: XVetik XX. mendera arteko erlijio gaiko pintura, batez ere italiar eta espainiar eskoletakoak. Eskultura erromanikoa, errenazimendukoa eta barrokoa. Prozesioetako gurutzeak (XVI eta XIX. mendeak) eta erlikia-ontziak, alabastroko piezak, errosarioak, etab.

7. ERROMATAR GARAIKO PLASTIKA ETA MOSAIKOAREN ARTE PROBINTZIALA: Armañá eta Batitales-eko mosaikoak (K.o. III. m) eta K.o. I eta IV. mende bitarteko erromatar eskulturren zenbait erakuskari. Horien artean azpimarragarriak dira Crecenteko estela eta Adai eta Atán-ko bi aurpegikoak.

Lehen solairura sartzeko eskailera neobarrokoa. Atarian, Francisco Asorey galiziar eskultore handiaren lanak: *Ofrenda a San Ramón* eta *San Francisco*.

LEHEN SOLAIRUA

8. ANTZINAKO URREGINTZA: Lepoko, belarritako, eskumuturreko eta urrezko eta zilarrezko bilduma oso garrantzitsua, batez ere Brontzezko Garaikoak eta Castreñar kulturakoak.

9. HISTORIAURREA ETA ARKEOLOGIA: goiko klaustroko ipar, ekialde eta hegoaldeko hegala hartzen ditu. Lugoko probintziako material arkeologikoen erakusketa, Paleolitikotik hasi eta Erromanizazio garaia bitartekoak.

10. NUMISMATIKA ETA MEDAILISTIKA: K.a. III. mendetik hasi eta K.o. XX. mende arterako txanponak, Iberiar Penintsulak bizi izandako aldi historiko desberdinen adierazgarriak, eta baita XVIII, XIX eta XX. mendeetako oroitzapenezko medailak.

GALIZIAR ARTEA

11. ATXABITXIAK ETA URREGINTZA: konpostelar atxabitxiak (XVI-XVIII mendeak) eta XVIII eta XIX. mendetako herri urregintza ("igel" bereizgarriak adibidez) erakusten dira bilduman.

12. PINTURA: ERROMANTIZISMOA ETA ERREGIONALISMOA. XIX eta XX. mendeetako artistak (J. Pérez Villamil, Dionisio Fierros, Leopoldo Villamil, Vaamonde, Román Navarro, Serafín Avendaño, Francisco Llorens, Quintás Goyanes, Seijo Rubio, Sotomayor, Manuel Abendela, etab.) garai horretako galiziar plastikaren adierazgarriak. X. Pino, M. Picallo, Otero Besteiro eta Bonome-ren eskulturak, besteak beste.

13. ABANGOARDIA HISTORIKOAK ETA GERRA ONDORENA. Lugoko Tino Grandío eta Maruja Mallo-ren lanak, eta baita Colmeiro eta Castelao-renak ere.

14. FIGURAZIOAK ETA ABSTRAKZIOAK. Alfonso Abendela, Felipe Criado, Sucasas, Blas Lourés, Luis G. Pacios, López Guntín eta Raimundo Patiño-k adierazitako joerak.

15. ANTONIO FERNÁNDEZ, zenbait urtez Anticoli-n bizi izandako Pontevedrako artista. Italiar herri hori oso presente dago mota errealistako bere obran. Paisaiak eta argiaren eta kolorearen kezka dira horietako gai nagusiak.

16. XULIA MINGUILLÓN, Lugoko artista izan zen Arte Ederretako Nazio-mailako Erakusketetan lehen domina irabazi zuen emakumea, 1940an, *A escola de Doloriñas* bere lan aipagarrienarekin.

17. XESÚS R. CORREDOIRA, Lugoko pintorea, Plá, Zuloaga eta Sorolla-ren dizipulua, *El Greco*-ren eragina ere nabaritzen zaio, erakusgai diren lanetako askotan ikus daitekeen moduan.

18. ESKULTURA: Puchades, Picallo-ren lanak eta Xosé M.^a Acuña-ren herri-gaietako eszena multzo bat.

19. SARGADELOS-KO LOZA: Sargadelos-eko Errege Fabrikaren (Cervo-Lugo) lau aldietan, XIX. mendean egindako bilduma garrantzitsua.

20. ZERAMIKA ETA BEIRA: Zeramika urreztatu (Manises, Muel), esmaltatu eta margotu (Talavera, Puente del Arzobispo) eta estanpatuaren adibideak ("La Cartuja", Cartagena). San Ildefonso-ko "La Granja" fabrikako beirak eta kristalak.

21. ARETO ERROMANTIKOA: DEKORAZIO ARTEAK ETA ERRETRATUAK: areto honetan dekorazio artearen eta jantziteriaren piezak erakusten dira, eta baita Esquivel, González de la Peña, Tissot, Pardo Reguera, Balaca eta Madrazo-tarrek egindako erretratuak ere.

22-23. ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEA. Barrokotik hasi eta XX. mendeko abangoardietarainoko pintura, besteak beste, egile hauen lanekin: Peter Roos, Carlos de Haes, Álvarez Dumont, Nicolás Soria, Gonzalo Bilbao eta Cruz Herrera. XX. mendeko eskultura: Ignacio Veloso, José Fioravanti eta Otero Camps. Erakusten diren aleen artean Torre-Isunza-ren *Piedad* nabarmentzen da. Lan horietako asko Pradoko Museo Nazionalaren eta Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazionaleko gordailukoak dira.

24-25-26-27. ARTE GALIZIARRA: MARRAZKIA ETA GRABATUA. Gune honen sarrera galiziar autoreen zenbait eskultura daude. Jarraian, galiziar artista garaikideei zuzendutako erakusketa

kolektiboa, marrazki eta grabatu lanekin, Castelao, Prieto Nespereira y Castro Gil-i eskainitako areto monografikoekin batera.

28. ARGI-ARMIARMAK. D. José Varela Dafonte-k dohaintzan emanak, garai desberdinetako argi-armiarma bilduma interesgarri eta bitxia da (sirio-palestinarrak, helenistikoak, erromatarrak, bizantziarrak eta islamikoak) K.a. 2300. urtetik K.o. XV. menderaino doan kronologiarekin.